

Jakinduria bertso bilakatuko da Azpeitian

Datorren igandean, urriak 26, bertsolaritza eta dibulgazio zientifikoa uztartuko dituen "Jakinduriek mundue erreko dau" saioa eskainiko da Sanagustin Kulturgunean, EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak eta Kulturaz Azpeitiko Kultur Kooperatibak antolatuta.

Eli Pagola eta Julio Soto bertsolariek bertsoa eta errima jarriko diete Ainhoa Bereziartua, Cecilia Fernandez-Altonaga eta Gaskon Ibarretxe ikertzaileek proposatuko dituzten zientzia kontuei. Ekitaldia Idoia Torregarai kazetaria eta umoregileak gidatuko du.

Azpeitian, 2025eko urriaren 20an. Atsotitzak esaera labur eta zorrotzak dira. Ateraldi edo sententzia gisa har daitezke eta badira pentsaera jakin baten isla ere. Horietako bat da "Jakinduriek mundue erreko dau" atsotitza, ezagutzarekiko mesfidantza agertzen duena. Baina urriaren 26an [Azpeitiko Sanagustin Kulturgunean](#) erremedioa jarriko diogu esaera zaharrari, ezagutza errimekin jantziz.

Helburu horrekin, [EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak](#) eta [Kulturaz Azpeitiko Kultur Kooperatiba herritarrak](#) bertsozientzia ikuskizuna antolatu dute, non ezagutza zientifikoa eta errimak elkartuko diren eszenatokian.

Idoia Torregarai kazetaria eta umoregilearen zuzendaritzapean, **Eli Pagola** eta **Julio Soto** bertsolariek Ainhoa Bereziartua, Cecilia Fernández-Altonaga eta Gaskon Ibarretxe ikertzaileek labur azaldutako gaiei buruz bertsoak botako dituzte.

Ainhoa Bereziartuak irekiko du saioa: doktoretza aurreko ikertzailea da bera Ingurumen-Osasunean, EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatean, eta hiri-ingurunearen, airearen eta ongizatearen arteko loturaz hitz egingo du. Zehazki, aire kutsatuak gure burmuinari eta osasun mentalari ere eragin diezaiketela azalduko du, ez birikei soilik.

Ondoren, EHUko Letren Fakultateko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikaskeketako sailean doktoregai den **Cecilia Fernandez-Altonaga** hizkuntzalariak hizkuntza batzuk besteak



baino zailagoak ote diren galderari helduko dio, hizkuntza-ikerketek eskaintzen dituzten ebidentziak oinarri hartuta.

Azkenik, **Gaskon Ibarretxe**, Neurozientzian doktorea eta EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko Zelulen Biologia eta Histologia saileko irakasleak nerbio sistema birsortzeko ama zelulek duten gaitasunaz hitz egingo du. EHUn egindako ikerketa batzuk aipatuko ditu bereziki, gure hortzen muinean neurona berriak sortzeko eta garuneko kalteak konpontzeko gaitasuna duten ama zelulak daudela erakutsi dutelako.

Ezagutza zientifikoa eta bertsoak elkartuko dituen “Jakinduriek mundue erreko dau” bertsozientzia saioa **datorren igandean** ospatuko da, **urriak 26, Azpeitiko Sanagustin Kulturgunean, 18:00etan**. Sarrera doan izango da, edukiera bete arte.

El conocimiento se transforma en bertso en Azpeitia

El próximo domingo 26 de octubre, Sanagustin Kulturgunea acogerá el espectáculo "Jakinduriek mundue erreko dau", actividad organizada por la Cátedra de Cultura Científica de la EHU y la Cooperativa Cultural de Azpeitia Kulturaz, que combina bertsolarismo y divulgación científica

Eli Pagola y Julio Soto pondrán voz y rima a cuestiones científicas propuestas por las investigadoras Ainhoa Bereziartua, Cecilia Fernandez-Altonaga y Gaskon Ibarretxe en un evento conducido por la periodista y humorista Idoia Torregarai

Azpeitia, 20 de octubre de 2025. Los refranes son expresiones breves y agudas, que pueden ser tomadas como una ocurrencia o una sentencia, y que reflejan un modo de pensar concreto. Uno de ellos es el refrán "Jakinduriek mundue erreko dau" (La sabiduría quemará el mundo), que muestra desconfianza hacia el conocimiento. El próximo domingo 26 de octubre se pondrá remedio al viejo dicho en el centro [Sanagustin Kulturgunea de Azpeitia](#), vistiendo con rimas el conocimiento científico.

Con este objetivo, la [Cátedra de Cultura Científica de la EHU](#) y la [Cooperativa Cultural de Azpeitia Kulturaz](#), han organizado un espectáculo de bertsozientzia en el que el conocimiento científico y las rimas se entrelazarán en el escenario.

Bajo la batuta de la periodista y humorista, **Idoia Torregarai**, los bertsolaris **Eli Pagola** y **Julio Soto** improvisarán sobre los temas expuestos de manera breve por las investigadoras Ainhoa Bereziartua, Cecilia Fernández-Altonaga y Gaskon Ibarretxe.

En primer lugar, **Ainhoa Bereziartua**, investigadora predoctoral en Salud Pública en la Facultad de Medicina y Enfermería de la EHU, hablará sobre la relación entre entorno urbano, aire y bienestar. En concreto, explicará cómo la contaminación no solo afecta a los pulmones, sino también a nuestro cerebro y, por ende, a nuestra salud mental.



Después, la lingüista **Cecilia Fernandez-Altonaga**, doctoranda en el Departamento de Lingüística y Estudios Vascos de la Facultad de Letras de la EHU, abordará la cuestión de si existen lenguas más difíciles que otras, apoyándose en la evidencia que ofrecen las investigaciones lingüísticas.

Por último, **Gaskon Ibarretxe**, doctor en Neurociencias y profesor en el Departamento de Biología Celular e Histología de Facultad de Medicina y Enfermería de la EHU, centrará su intervención en el papel de las células madre en la regeneración del sistema nervioso. En particular, explicará cómo algunas investigaciones realizadas en la EHU han demostrado que en la pulpa dental –tejido blando de los dientes- se encuentran células madre con capacidad para generar nuevas neuronas y reparar lesiones cerebrales.

La sesión de bertsozientzia, “Jakinduriek mundue erreko dau”, que combinará bertsos y charlas de divulgación científica, se celebrará el **próximo domingo 26 de octubre a las 18:00 horas** en **Sanagustin Kulturgunea en Azpeitia**. La entrada será libre hasta completar el aforo.